



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 9a

34. ZK.

### A U R K I B I D E A

F S A I L A:

**Galderak:**

- Galdera, zerga-igoerak enpresen eta nafar zergadunen deslokalizazioan izan dezakeen eragina ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei eta azterlanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, jakiteko noizko aurreikusten den Tuterara eta Nafarroako Erriberara heltzea Itoizko urtegiko edateko ura. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Tafallako “Sancho III el Mayor” Bigarren Hezkuntzako Institutuko DBHko zenbait taldetan matematikako irakaslerik ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Alkerdiko kobazuloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak ezartzearen ondoriozko irakasle-lanpostuak eskuratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta Nafarroan 2016rako ezarriko diren zerga-tasei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Iruñeko San Frantzisko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko patioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, 14/2015 Foru Legea garatzeko planaren prestaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko talde integral bat Nafarroaren Iparralderako eta Iruñerriko kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa eta promozioa arautzen dituzten foru aginduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, “Valle del Ebro” BHIrako eta Tuterako ETI ikastetxe integratu politeknikorako sarbideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuterako “Valle del Ebro” BHIko irakasle bati eskola ordu kopurua handitzea ukatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Gazte Bermearen Funtseko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- Galdera, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren neurriei buruzkoa, ETaren biktimen memoria erreparatu, haien duintasuna berreskuratu eta justizia egitekoak. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunean endoskopietarako gelak irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Ogasun Ministerioaren ordainketari buruzkoa, C hepatitisaren aurkako tratamendurakoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoaren azpiegitura berriak egiteko aurreikusitako epeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresen lehiakortasunari buruzkoa, sozietateen zerga dela-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, autismoaren arloko esku-hartze terapeutiko handiagoaren beharrari buruzkoa, haurrei eta nerabe-ei dagokienez. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, erradioterapiako tratamendua jasotzen duten Erriberako gaixoen ordutegi-banaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Osasun Mentaleko Erizaintzako espezialitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroan jarduten duten segurtasun indar ezberdinek azken 20 urteotan eginiko atxiloketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, zerga-igoerak enpresen eta nafar zergadunen deslokalizazioan izan dezakeen eragina ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei eta azterlanei buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zerga-igoerak enpresen eta nafar zergadunen deslokalizazioan izan dezakeen eragina ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei eta azterlanei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du. Galdera 2015eko urriaren 9ko 1524 sarrera-zenbakia dauka (8-15/PES-00100), eta haren bidez jakin nahi du Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen eta azterlan dituen jakiteko zerga-igoerak zer eragin izanen duen Nafarroako enpresen eta zergadunen deslokalizazioari dagokionez. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna

Ez dakigu galdera kasu abstrakturen bati buruzkoa den (orokorrean, zerga-igoera batek daukan eraginari buruzkoa) edo iragarri den baina galdera aurkezteko egunean oraindik onetsi ez den zerga erreformaren proiektuari buruzkoa den.

Erantzun hau eman dugu bigarren agertoki hori aintzat hartuta, nahiz eta kasu honetan ontzat ematen dugun galderak berarekin balio-juzku bat badakarrela; hain zuzen ere, balio-juzku hori da datorren urterako zerga erreforma xehetasun gehiagorik gabe “zerga-igoera” batentzat har daitekeela. Egia bada ere parametro batzuk goruntz

doitu direla, 2015ean zeudenekin alderatuta, egia da, halaber, neurri horiekin batera aurrekoak baino erakargarriagoak diren beste batzuk badaudela.

Nolanahi ere, zergadunen deslokalizazioa gai nahikoa serioa bada, eta horregatik, alde zuretik, zenbait zehaztapen egin behar dira:

– Oro har, ontzat ematen da enpresa baten kokapenari buruzko erabakian faktore objektibo (eta askotan objektiboak ere) asko daudela jokoa, era askotakoak; esate baterako, azpiegituren egoera, zerbitzu publikoen kalitatea, Administrazioaren gotortasuna eta hurbiltasuna, populazioaren prestakuntza maila, segurtasun juridikoa, kriminalitatearen adierazlea eta abar. Horrenbestez, zerga-sistemari buruzko balorazioa elementu garrantzitsua bada, baina erabaki horretan kontuan hartzen direnetako bat baizik ez da.

– Horrenbestez, pertsonen eta entitateen kokapena, Espainiaren barruko beste lurralde batzuekiko erreferentziari dagokionez, Nafarroak eta Estatuak izenpetuta daukaten hitzarmen ekonomikoan jasotako arauen arabera da. Horrenbestez, ez litzateke arinkiaz hitz egin beharko “deslokalizazioak” gertatzeko aukerari buruz, zeren eta horiek aukera legitimoak burutzearen baitan egon baitaitezke ere, beste askotan legez kanpokoak izan litezkeenei buruzko kabalak egitea baitakar.

Gainera, gogoeta egin beharko litzateke ea aukera horri buruzko gehiegizko publizitatea egiteak ez ote dakarren “dei-efektua” esan genezakeena, zeinak, finean, Foru Komunitaterako negatibotzat jotzen den eragina biderkatzen baitu.

Eta planteatutako gaiaren sakoneko aldera sartuta, ulertuz orain foru lege proiektuaren fasean dagoen erreformaren eraginak zalantzan jarri nahi direla, esan liteke aipatutako eraginei buruzko

simulaziorik ez dagoela, honako arrazoi hauek direla eta:

– Neurrien multzo konplexu bati buruz ari gara, zeinak kasu batzuetan zerga-presioaren gogortzea ez ezik, bestelako neurri batzuei ere eusten baitie, zeinak erakargarriago suerta baitaitezke beste lurralde batzuetan eskaintzen direnak baino. Sozietateen gaineko zergan zentratuta, honakoak aipa litezke: enpresa txiki eta ertainentzako zergatasak; I+G+b egiteagatiko kenkari motak; kirola, kultura eta gizarte laguntza babesteko jarduerengatiko kenkaria; zinema-produkzioarengatiko kenkaria; inbertsioetarako erreserba berezia; berrinbertsioarengatiko salbuespena; aktibo finko berrietan inbertitzeagatiko kenkaria; arrisku-kapitaleko entitateentzako kenkaria; atzerriko ondasunen deklarazioa epez kanpo erregularizatzeko aukera, eta abar.

– Zerga erreformari buruzko foru lege proiektua beste lurralde batzuetan dagoen egoerarekin

alderatzen ari gara, baina egoera hori edozein unetan alda daiteke; are gehiago kontuan hartuta hauteskunde orokor batzuen atarian gaudela eta bertan lehian dauden formazioetako batzuek iragarri dutela zerga-tasak igo egingen dituztela (PFEZa, sozietateen gaineko zerga) eta beste zerga batzuk ezarriko dituztela, nola baita Aragoi hidrokarburuen gaineko tasa autonomikoa.

Aurrekoaren guztiaren ondorioztapena da guztiz ezinezko gertatzen dela zure galderan aipatzen den simulazioa egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015ko azaroaren 13an.

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:  
Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, jakiteko noizko aurreikusten den Tuterara eta Nafarroako Erriberara heltzea Itoizko urtegiko edateko ura.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko noizko aurreikusten den Tuterara eta Nafarroako Erriberara heltzea Itoizko urtegiko edateko ura. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana María Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko noizko aurreikusten den Tuterara eta Nafarroako Erriberara heltzea Itoizko urtegiko edateko ura (9-11-/PES-000101). Hauxe da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak ematen dion erantzuna:

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena gaurkotzen duen hirugarren akordioa 2013ko abuztuaren 28an sinatu zuten Artaxoan Nafarroako Gobernuak aurreko lehendakari Yolanda Barcina andreak eta orduan arlo horretako ministroa zen Miguel Arias Cañete jaunak.

Akordio horrek, zeina indarrean baitago gaur egun, honako hau jasotzen du bigarren klausulan:

Bigarrena.- Bi Administrazioek, "Canal de Navarra SA" sozietatearekin batera, lehen fasea handitzeko obrak 2014tik 2015era egin ahal izateko eta aurrerago Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitze behar diren izapideak egingo dituztela, arin eta lana koordinatuta, bakoitzak dauzkan eskumeneren alorrean.

Dokumentu bereko VIII. atalean Nafarroako Ubidea eraikitzeari buruzko Jarraipen Batzordearen zortzigarren bileraren ondorioak jasotzen dira. Bilera hori 2012ko uztailaren 31n egin zen, eta bertan erabaki zen bi administrazioei eta "Canal de Navarra SA"ri proposatzea behar diren

jarduketak egin zitzatela besteak beste honako alderdi hauek jaso eta garatzeko:

“Bosgarrena.- Hastea Nafarroako ubidearen bigarren fasea, CANSASak garatu beharrekoa, eraikitze proiektuen idazketan; aurrerago, agintari eskudunek onetsiko dute proiektu hori.

Seigarrena.- Bai CANSASak bai bi Administrazioek Nafarroako Ubideko bigarren faseko obrak egiteko behar diren izapideak eta ekimenak gauzatzea.

Zazpigarrena.- Bigarren faseko obrak egiten hasi baino lehen ekonomia eta finantza kalkuluak eginen dira berriro, eta aldeek horiek onartzea onetsiko dute.”

Horrenbestez, gaur den egunean, hitzarmena sinatu zenetik bi urte iragan direla, oraindik ere ez dago ura Tuterara iristeko datarik, zeren eta ez baitira gauzatu hitzarmenaren hirugarren gaurko-

tzean adostutako puntuak. Lehen fasearen handitzeak berak ere atzerapena dauka 2013an onetsi zenarekiko.

CANSASak Pitillasko presa/baltsaren proiektua baino ez du onetsi.

Gobernu honek behar diren lanak hasi ditu 2013ko hitzarmenean ezarritakoa betetzeko, eta Estatuko Administrazio Orokorrek bere eskumen esparrukoak direnak egiten baditu, haiek amaitzen direnean, ezagutzera emanen dugu zein den jarduketaren egutegia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, Tafallako “Sancho III el Mayor” Bigarren Hezkuntzako Institutuko DBHko zenbait taldetan matematikako irakaslerik ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako “Sancho III el Mayor” Bigarren Hezkuntzako Institutuko DBHko zenbait taldetan matematikako irakaslerik ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak informazio eskari bat aurkeztu du Tafallako Sancho III el Mayor BHIko matematikako zenbait lanpostu betetzeari buruz (9-15/PES-00102). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Une honetan, unibertitatez besteko irakasleak ordeztuko Hezkuntza Departamentuak erabiltzen

dituen irizpideak dira hain zuzen ere 2011-2012 ikasturterako aurreko Nafarroako Gobernuak ezarri zituen berak.

Irailaren 23an, Hezkuntza Departamentuan sartu zen Tafallako BHIko matematikako irakasle baten aldi baterako ezgaitasun egoeraren agiria. Irailaren 21eko hasiera-data dauka. Irakasleak ordeztuko irizpideei jarraituz, kontratua irailaren 30erako baimendu zen.

Bestalde, irailaren 5ean institutu bereko matematikako beste irakasle baten aldi baterako ezgaitasun egoeraren berri eman zen, eta kontuan hartuta lehenengo ordezte oraindik ere bete gabe zegoela, azken hori berehala baimendu zen.

Lanpostu horiek betetzeko telefono-deiak irailaren 28an hasi ziren. Kontuan izanda kontratazio-zerrendetako izangaiek ondoz ondotik ezezkoa eman ziotela lanpostuak betetzeari, urriaren 9an bi lanpostu horiek betetzeko borondatezko parte-hartzearen bidezko deialdia egin zen webgunean. Urriaren 13an, borondatezko parte-hartzerako prozedura hori ebatzi zen, eta urriaren 14an hasi ziren irakasleak institutuan.

Parlamentu-galderaren testuan, halaber, galdezen da irakasleen kontratazioan dauden gabeziei aurre egiteko Departamentuak hartutako erabakiei buruz. Horri dagokionez, Hezkuntza Departamentuak, esleitzen zaizkion aurrekontuak zein diren jakin gabe ere, hasia da azterketa bat egiten aurreko Gobernuak 2011-2012 ikasturterako ezarrituen ordezte-irizpideak berrikusteko, bai izangaiei dei egiteko irizpideak aldatzen hasteko ere,

deiak egiten hasteko eguna aurreratzeari begira eta lanpostuak esleitzeko telefono bidezko sistemaren eta bertaratze-sistemaren ordeztzeko irakasleentzako kontratuak web bidez esleitzeko sistema bat erabiltzeari begira.

Iruñean, 2015eko azaroaren 5ean

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, Alkerdiko kobazuloari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Alkerdiko kobazuloari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakin nahi baitu zertan diren interes kulturalako ondasun gisa deklaraturako dagoen Alkerdiko kobazuloaren babes delata-eta egiten ari diren zuzemena eta hartuko diren erabakiak (9-15/PES-00103). Hauxe da horri buruzko informazioa:

Nafarroako Gobernuak, 2015eko abuztuaren 12an egindako bilkuran, honako hau erabaki zuen:

Adieraztea lantalde bat eratzeko interesa duela, Urdazubiko "Alkerdi" harrobiaren ustiaketa-espeditentean ukitutako alde guztiekin, ahal den epe laburrean konponbiderik onena bilatzeko, horretarako oinarriztat hartuta legearen betetze zorrotza ez ezik, ukitutako interesak ahal den gutxian asetzera ere.

Lantaldea abuztuaren 24an bldu zen. Ondokoa bertaratu ziren:

– Manuel Ayerdi (Lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilaria)

– Izaskun Goñi (Garapen Ekonomikorako Departamentuko kabineteburua)

– Iñaki Morcillo (Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusia)

– Jesús Lasa (Energiaren, Meategien eta Industria Segurtasunaren Zerbitzuko burua)

– Fernando Pérez (Kulturako zuzendari nagusia)

– Jesús J. Ascunce (Ondare Historikoaren Zerbitzuko burua)

– Santiago Villares eta txomin Iribarren (Urdazubiko Udaleko alkatea eta alkateordea)

– Patxi Iriarte eta Maxu Fagoaga (SOS Alkerdiren ordezkari gisa)

– Jorge M. Pérez de Heredia, Manuel Piquer eta Juan José Moraga ("Mármoles del Baztán" enpresaren ordezkari gisa)

– Francisco Javier Varela eta Iñigo Imaz ("Urdazubi Elgarrekin" elkarteko ordezkari gisa)

– Óscar Kaion eta Koldo Sáez (LAB sindikatuen ordezkari gisa)

– José Ignacio Irigoien eta Pedro J. Gracenea (langileen ordezkari gisa)

– Laura Larraya (idazkari gisa)

Bilera horretan, non alde guztiek beren jarrera azaldu baitzuten, bigarren bilera bat iragarri zen, non berariaz aztertuko baitzen espeditentean izapidetze administratiboa. Hortaz, bigarren bilera irailaren 1ean egin zen.

Lantaldearen lana oraindik ere amaitu ez denez, ez da behin betiko erabakirik hartu gaiari buruz. Agerikoa den bezala, erabaki horietan lantalde horren ekarpenak hartuko dira kontuan.

Bere aldetik, Kultura Zuzendaritza Nagusiak kultur ondasunen ezagutza hobetzeko eta haiek babesteko egin beharreko lanei berrekin die.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 13an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria Ana Herrera Isasi

## **Galdera, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak ezartzearen ondoriozko irakasle-lanpostuak eskuratzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak ezartzearen ondoriozko irakasle-lanpostuak eskuratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu parlamentu-taldeak aurkeztutako 9-15/PES-00104 informazio eskaerari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Planteatutako lehenengo gaiari dagokionez –apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren edukia aldatuko ote dugun halako moduan non ekidin eginen baita egiaztagiri iragankorrak ematea eta hizkuntza mailarik ez daukaten pertsonen ingelese irakatsi ahal izatea gutxienez ere C1 maila eskatzen duten lanpostuetan–, egun indarra duen legediak arautzen du ezen C1 maila eduki beharra dagoela ingelesezko PAI programan irakaskuntzan aritzeko, eta modu subsidiarioan B2 maila ere onar daitekeela.

Programaren zabalpen handia dela eta, ez dago behar beste irakasle C1 maila duenik dauden lanpostu huts guztiak betetzeko; hori dela eta, B2 maila duten langileak hartu dira.

Foru Dekretuak xedapen iragankorrean ezarri zuten C1 iragankor bat lor daitekeela, B2 maila izan eta PAI programan bi ikasturtez irakasle egon izatearen baldintzapean, edo, bestela, C1 maila eskuratzeko xedea duten prestakuntza-ikastaroetan izena emanda egotearen baldintzapean. Horren bidez, B2 maila duten irakasleen kolektiboaren barruan, bereizi nahi dira C1 hizkuntza-maila lortzetik hurbilen daudenak.

Neurri hori 2020-2021 ikasturtean amaituko da, halako moduz non epe horretan C1 maila lortu ez dutenek galduko duten kreditatutako profil iragankorra.

Une hauetan, PAI programaren egoerari buruzko azterketa bat egiten ari gara, zenbait ikuspuntutatik; horrenbestez, 37/2014 Foru Dekretuaren edukia aipatutako azterketa horretan sartzen da, eta haren aldaketari buruzko aurreikuspena azterketa horren emaitzak lortzeari lotuta egonen da.

Bigarren galderaren erantzuna –gaur egun zenbat irakasle dauden C1 maila izan ez eta PAIn irakasle ari direnak– honako taula honetan jaso dugu.

PAI PROGRAMAKO IRAKASLEAK, HIZKUNTZA MAILAREN ARABERA				
HIZKUNTZA MAILA	C1	C1 iragankorra	B2	Guztira
Behin betiko funtzionarioak	154			154
Behin-behineko funtzionarioak	34		8	42
Kontratadunak	160	22	50	232
Guztira	348	22	58	428
Hizkuntza mailaren araberako ehunekoa (428 irakasle hartuta)	% 81,31	% 5,14	% 13,55	

Hurrengo lerroketan, ingelesezko aldi baterako egiaztagiria lortu duten pertsonen zerrenda ageri da, hain zuzen ere apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuko xedapen iragankorrean aipatzen dena, hirugarren galderan eskatu bezala.

37/2014 Foru Dekretua argitaratu zenetik egin diren deialdietan, guztira 77 pertsona kreditatu dira. Hona haien banaketa:

2014-12-11ko Ebazpena: 2 pertsona.

2015-06-11ko Ebazpena: 53 pertsona.

2015-10-07ko Ebazpena: 22 pertsona. Ebazpen horretan, aurreko ebazpenean modu iragankorrean kreditatutakoetatik 4 pertsonak C1 egiaztagiria lortu dute.

Honela banatzen da kreditatutako pertsonen guztizkoa:

Funtzionarioak: 21 (14 maisu-maistren kidegoak eta y bestelako irakasle-kidegoetakoak).

Kontrataziorako izangaiak: 56 (45 maisu-maistren espezialitateetako zerrendetakoak eta 11 beste kidegoetako espezialitateetako zerrendetakoak).

Kontratazio-zerrendetako 56 pertsonetatik, 1 zerrendetatik kanpo geratu da eta 4k C1eko egiaztagiria lortu dute geroko deialdietan; horrenbestez, gaur egun 51 pertsona geratzen dira aldi baterako kontratazioetarako zerrendetan. Horietatik, 40 pertsona maisu-maistren espezialitateetako zerrendetan daude.

Maisu-maistren espezialitateetako zerrendetan dauden 40 pertsonetatik 22k PAI programan lan egiten dute, ondoko espezialitate hauetan:

4k hezkuntza fisikoan, gaztelaniaz.

13k haur hezkuntzan, gaztelaniaz.

4k lehen hezkuntzan, gaztelaniaz.

1ek lehen hezkuntzan, euskaraz.

Egindako laugarren galderari dagokionez –ingelesezko lanpostuak aldi baterako betetzeko kontratazio-zerrendetan zenbat pertsona dauden C1 maila izanik maila hori ez duten eta egiaztagiri iragankorra dutenen atzetik–, esan beharra dago egiaztagiri iragankorra lortu duten eta PAI programan lan egiten duten 22 pertsonak ordenatuta daudela, C1 profila duten 450 pertsonekin batera (horietako batzuk, agian, izangaien zerrenda batean baino gehiagotan daude), puntuazioaren arabera dagokien hurrenkeran. Horrenbestez, talde bakoitzeko izangaien zerrendetan tartekatuta daude (lehentasunezko zerrenda edo zerrenda orokorraren barruko talde desberdinak). Horri gehitu beharra zaio egiaztagiri iragankorra lortu dutenetatik batzuek ez dutela PAI programan lan egiten, baizik eta beste espezialitate edo hizkuntza batean. Inguruabar horiek eragozten dute zehaztea zenbat pertsona dauden atzetik.

Hezkuntza fisikoko gaztelaniazko zerrendan dagoen pertsona bat izan ezik, oraindik lanerako moduan jarraitzen baitu, haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza fisikoko zerrendetan, gaztelaniazkoetan zein euskarazkoetan, C1 edo C1 iragankorra duten langile guztiei lana eskaini zaie eta guztiak PAI programan ari dira, salbu eta, noski, beren borondatez aukera horri uko egin diotenak.

Azkenik, egindako azkeneko galderari erantzuteko, une hauetan asmorik ez dago PAI programan ingelesezko irakaskuntzan aritzeko hizkuntza-mailaren betekizuna behartzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 5ean

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña



## **Galdera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta Nafarroan 2016rako ezarriko diren zerga-tasei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, beste autonomia erkidegoekin alderatuta Nafarroan 2016rako ezarriko diren zerga-tasei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du. Galdera 2015eko urriaren 15eko 1589 sarrera-zenbakia dauka (8-15/PES-00105), eta haren bidez jakin nahi du nola geldituko diren Nafarroako 2016rako zerga-tasak –PFEZarenak, aurrezkiarenak, ondarearen gaineko zergarenak eta sozietateen gaineko zergarenak–, Euskal Autonomia Erkidego, Aragoi, Madril, Errioxa eta Galiziakoekin alderatuta. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna:

Galderari erantzuteko, Excel dokumentu bat erantsi dugu, lau erlaintz dituena (eskatutako informazio bakoitzeko bana), non zerga-tasei buruz eskatutako alderatzea zehazten baitugu.

Edukia zehazte aldera, honako gogoetak egin nahi ditugu:

Lehena.- Nahiz eta eskaintzen dena izan 2016rako zerga-tasen alderaketa, nabarmendu beharra dago gaur den egunean halakoak ezin direla segurtasun osoz zehaztu, zeren eta batzuetan ez baitaude behin betiko finkatuta (Nafarroako kasuan, esate baterako, Parlamentuan izapidetzeko fasean dago) eta, gainera, litekeena da abenduaren 31 bitarte aldatzea. Hori dela eta, batzuetan 2016rako aurreikusitako tasak eta beste batuetan 2015ean indarrean daudenak eskaini ditugu.

Bigarrena.- PFEZaren kasuan, Aragoi, Madril, Errioxa eta Galiziak estatuko tarifa eta tarifa autonomikoa dauzkate, halako moduz non tarifa erreala bi horien metaketaren emaitza baita.

Hirugarrena.- Madrilgo Erkidegoko ondarearen gaineko zergaren kasuan, kuotaren hobaria 100eko 100 da. Errioxan, 100eko 50.

Laugarrena.- Aragoi, Madril, Errioxa eta Galiziako sozietateen gaineko zergari dagokienez, gai horretan eskumenik ez dutenez, estatuko tasak eman ditugu.

Bosgarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, bereiz eman ditugu Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko tasak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2015eko azaroaren 12an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

**PFEZAREN TARIFA OROKORRA**

**NAFARROA**

2016ko eskala

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		4.000,00	13,00
4.000,00	520,00	5.000,00	22,00
9.000,00	1.620,00	10.000,00	25,00
19.000,00	4.120,00	13.000,00	28,00
32.000,00	7.760,00	14.000,00	36,50
46.000,00	12.870,00	14.000,00	41,50
60.000,00	18.680,00	20.000,00	44,00
80.000,00	27.480,00	45.000,00	47,00
125.000,00	48.630,00	50.000,00	49,00
175.000,00	73.130,00	125.000,00	50,50
300.000,00	136.255,00	Oinarriaren soberakina	52,00

**BIZKAIA, GIPUZKOA eta  
ARABA**

2015eko eskala

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	15.550,00	23,00
15.550,00	3.576,50	15.550,00	28,00
31.100,00	7.930,50	15.550,00	35,00
46.650,00	13.373,00	19.990,00	40,00
66.640,00	21.369,00	25.670,00	45,00
92.310,00	32.920,50	30.760,00	46,00
123.070,00	47.070,10	56.390,00	47,00
179.460,00	73.573,40	horitik aitzina	49,00

**ARAGOI**

2016ko estatuko eskala

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	12.450,00	9,50
12.450,00	1.182,75	7.750,00	12,00
20.200,00	2.112,75	15.000,00	15,00
35.200,00	4.362,75	24.800,00	18,50
60.000,00	8.950,75	Hortik gora	22,50

**MADRIL**

2016ko estatuko eskala

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	12.450,00	9,50
12.450,00	1.182,75	7.750,00	12,00
20.200,00	2.112,75	15.000,00	15,00
35.200,00	4.362,75	24.800,00	18,50
60.000,00	8.950,75	Hortik gora	22,50

**ERRIOXA**

2016ko estatuko eskala

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	12.450,00	9,50
12.450,00	1.182,75	7.750,00	12,00
20.200,00	2.112,75	15.000,00	15,00
35.200,00	4.362,75	24.800,00	18,50
60.000,00	8.950,75	Hortik gora	22,50

2015eko  
eskala  
autonomikoa

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	12.450,00	10,00
12.450,00	1.245,00	7.750,00	12,50
20.200,00	2.213,75	13.800,00	15,50
34.000,00	4.352,75	26.000,00	19,00
60.000,00	9.292,75	Hortik gora	21,50

2015eko  
eskala  
autonomikoa

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	12.450,00	9,50
12.450,00	1.182,75	5.257,20	11,20
17.707,20	1.771,56	15.300,00	13,30
33.007,20	3.806,46	20.400,00	17,90
53.407,20	7.458,06	Hortik gora	21,00

2015eko  
eskala  
autonomikoa

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	12.450,00	9,50
12.450,00	1.182,75	7.750,00	12,50
20.200,00	2.151,50	13.800,00	15,50
34.000,00	4.290,50	26.000,00	19,50
60.000,00	9.360,50	Hortik gora	23,50

**GALIZIA**

## 2016ko estatutuko eskala

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	12.450,00	9,50
12.450,00	1.182,75	7.750,00	12,00
20.200,00	2.112,75	15.000,00	15,00
35.200,00	4.362,75	24.800,00	18,50

2015eko  
eskala  
autonomikoa

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	17.707,20	12,00
17.707,20	2.124,86	15.300,00	14,00
33.007,20	4.266,86	20.400,00	18,50
53.407,20	8.040,86	Hortik gora	21,50

**PFEZAREN TARIFA BEREZIA****NAFARROA**

2016ko eskala

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		6.000,00	19,00
6.000,00	1.140,00	4.000,00	21,00
10.000,00	1.980,00	5.000,00	23,00
15.000,00	3.130,00	Gainerakoa	25,00

**BIZKAIA, GIPUZKOA eta ARABA**

2015eko eskala

LIKIDAZIO-OINARRIA (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)
2.500,00 arte	20,00
2.500,01 eta 10.000,00 bitarte	21,00
10.000,01 eta 15.000,00 bitarte	22,00
15.000,01 eta 30.000,00 bitarte	23,00
30.000,01etik aurrera	25,00

**ARAGOI, MADRIL, ERRIOXA eta GALIZIA**

2016ko eskala metatua (estatukoa+autonomikoa)

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	6.000,00	19,00
6.000,00	1.140,00	44.000,00	21,00
50.000,00	10.380,00	Hortik gora	23,00

**ONDAREAREN GAINEKO ZERGA****NAFARROA**

2015 eta 2016ko eskala	Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
	0,00	0,00	155.511,88	0,16
	155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
	311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
	622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
	1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
	2.488.190,11	19.283,46	2.488.190,11	1,36
	4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
	9.952.760,45	136.726,02	Hortik aitzina	2,00

**BIZKAIA**

2015eko eskala	Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
	0,00	0,00	800.000,00	0,20
	800.000,00	1.600,00	800.000,00	0,60
	1.600.000,00	6.400,00	1.600.000,00	1,00
	3.200.000,00	22.400,00	3.200.000,00	1,50
	6.400.000,00	70.400,00	6.400.000,00	1,75
	12.800.000,00	182.400,00	Hortik aitzina	2,00

**GIPUZKOA (Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga)**

2015eko eskala	Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
	0,00	0,00	500.000,00	0,25
	500.000,00	1.250,00	1.000.000,00	0,50
	1.500.000,00	6.250,00	1.500.000,00	0,75
	3.000.000,00	17.500,00	Hortik aitzina	1,00

**ARABA**

2015eko eskala

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	200.000,00	0,20
200.000,00	400,00	200.000,00	0,30
400.000,00	1.000,00	400.000,00	0,50
800.000,00	3.000,00	800.000,00	0,90
1.600.000,00	10.200,00	1.600.000,00	1,30
3.200.000,00	31.000,00	3.200.000,00	1,70
6.400.000,00	85.400,00	6.400.000,00	2,10
12.800.000,00	219.800,00	Hortik aitzina	2,50

**ARAGOI, MADRIL eta ERRIOXA**

2015eko eskala

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	167.129,45	0,20
167.129,45	334,26	167.123,43	0,30
334.252,88	835,63	334.246,87	0,50
668.499,75	2.506,86	668.499,76	0,90
1.336.999,51	8.523,36	1.336.999,50	1,30
2.673.999,01	25.904,35	2.673.999,02	1,70
5.347.998,03	71.362,33	5.347.998,03	2,10
10.695.996,06	183.670,29	Hortik aitzina	2,50

**GALIZIA**

2015eko eskala

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	167.129,45	0,24
167.129,45	401,11	167.123,43	0,36
334.252,88	1.002,76	334.246,87	0,61
668.499,75	3.041,66	668.499,76	1,09
1.336.999,51	10.328,31	1.336.999,50	1,57
2.673.999,01	31.319,20	2.673.999,02	2,06
5.347.998,03	86.403,58	5.347.998,03	2,54
10.695.996,06	222.242,73	Hortik aitzina	3,03

**SOZietateen GAINeko ZERGA****NAFARROA**

2016ko tasa orokorrak

TASA	EHUNEKOA
Orokorra	28,00
Enpresa txikiak (<10 milioi)	23,00
Mikroenpresak (<1 milioi)	19,00

**BIZKAIA, GIPUZKOA eta ARABA**

2016ko tasa orokorrak

TASA	EHUNEKOA
Orokorra	28,00
Enpresa txikiak (<10 milioi eta < 50 langile) eta mikroenpresak (<2 milioi eta < 10 langile)	24,00

**ARAGOI, MADRIL, ERRIoxA eta GALIZIA**

2016ko tasa orokorrak

TASA	EHUNEKOA
Orokorra	25,00



## **Galdera, Iruñeko San Frantzisko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko patioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Roncesvalles Solana Arana andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko San Frantzisko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko patioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko M<sup>a</sup> Roncesvalles Solana Arana andreak 9-15/PES-00106 galdera egin du, non Departamentuari informazioa eskatzen baitio Iruñeko San Frantzisko haur eta

lehen hezkuntzako ikastetxe publikoko patioaren zati bat estaltzeari buruz. Hona erantzuna:

a) Galdera hori jada Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean aztertu zen 2015eko martxoaren 5ean, eta orduan Gobernua premiatu zen Iruñeko Udalarekin batera balora zezan aipatutako ikastetxeko patioa estaltzeko aukera.

b) Hezkuntza Departamentuak ez zuen bete aurreko puntuan aipatutako mozioa.

c) Eskatutako obren kostua 570.000 eurokoa dela zenbatetsi da, eta haiek egiteko epea, berriz, 3 hilabetekoa da. Obra horiek egiteko hitzarmen bat sinatu beharko litzateke Iruñeko Udalarekin, eta hitzarmen horrek aurrekontuan toki bat eduki beharko luke dagokion urtean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an.

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, 14/2015 Foru Legea garatzeko planaren prestaketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 14/2015 Foru Legea garatzeko planaren prestaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín andreak idatzizko galdera egin du 14/2015 Foru Legea garatzeko plana taxutzeko laguntza tekniko kontratatzeari buruz (9-15/PES-00107). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Kontratazio-prozesua:

Laguntza kontratuko baldintza administratiboen orrian ezarritakoaren arabera:

– 2015-08-24: Iragarkia argitaratzea Kontratazio Atarian (eskaintzak aurkezteko epea 2015-08-25etik 2015-09-14ra, 18 egun). 8.1 puntua.

– 2015-09-17: Kontratazio mahaiaren eraketa. Jasotako proposamenak zabaltea. Proposamenen balorazioa, dokumentazio administratiboaren arabera. Dokumentazio tekniko irekitzea.

– 2015-09-22: Dokumentazio teknikoaren balorazioa eta eskaintza ekonomikoa zabalteko data Atarian argitara dadin ezartzea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 58. artikuluari jarraituz. 2015-09-28rako ezarri da.

– 2015-09-28: Eskaintza ekonomikoak zabalteko ekitaldi publikoa. Haien balorazio ekonomikoa egiten da, bai eta Kontratazio Mahaiak haiek esleitzeko proposamena ere.

Esleipendunari jakinarazten zaio, dokumentazioa aurkez dezan (11. puntuari jarraituz, 7 eguneko epean).

– 2015-10-13: Laguntza kontratua esleitzeko ebazpena eta esleipena Atarian argitaratzen da (12. puntuari jarraituz).

– 2015/10/14: Kontratuaren sinadura (13. puntuari jarraituz).

14/2015 Foru Legeko garapen plana kontratazeko prozesuan, baldintza administratiboen orri-

tan jasotako urrats, epe eta estipulazioei jarraitu zaie.

Aurkezteko epea 2015-09-14an amaitu zen, eta gainerako faseekin jarraitu zen esleipena Kontratazio Atarian 2015-10-13an argitaratu arte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## **Galdera, indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko talde integral bat Nafarroaren Iparralderako eta Iruñerrirako kontratatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko talde integral bat Nafarroaren Iparralderako eta Iruñerrirako kontratatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín andreak idatzizko galdera egin du Indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko talde integral bat Nafarroaren Iparralderako eta Iruñerrirako kontratatzeari buruz (9-15/PES-00109). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Galderan aipatzen den bezala, aurreko Gobernu indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko

beste talde integral bat kontratatzeko zegoen, eta gobernu berri honek uneoro adierazi du 2016rako Nafarroan beste talde bat abian jartzeko erabakia eta konpromisoa duela. Talde hori non kokatu behar den eta zein giza baliabide eta baliabide material behar dituen zehazteko, azterlan bat egin beharra dago, erabakia hartu ahal izateko.

Une hauetan, azterlana egiten ari gara eta lanbilerak egiten ari gara aipatutakoa baloratu eta zehazteko. Izan ere, erabaki hori hartzen denetik aurrera, taldea kontratatzeko administrazio-prozedurari ekinen zaio.

Nafarroan, gaur egun, indarkeria kasuen arretarako diziplinarteko bi talde integral daude lanean, eta Nafarroako beste hiru eskualdetara zabaldu behar dira. Hori dela eta, zehaztasun handiz aztertu beharra dago taldea non komeni den kokatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## **Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa eta promozioa arautzen dituzten foru aginduei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa eta promozioa arautzen dituzten foru aginduei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Carlos Jimeno Gurpegui jaunak 9-15/PES-00110 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Aurkeztutako galderaren bitartez ezagutu nahi da noiz argitaratuko diren Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten duten ikasleen ebaluazioa eta mailaz igozteara arautzeko foru aginduak. Horri buruz honakoa esan behar dugu:

Apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakaskuntzarako curriculuma ezartzen duenak, lehen xedapen gehigarrian arautzen du irakaskuntza horiek ezartzeko egutegia.

Egutegi horrek finkatzen duenez ezarpena pixkanaka egiten dela, 2015/2016 ikasturtean derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen eta hirugarren mailetan 25/2015 Foru Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren eta laugarren mailetan, berriz, martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoa.

25/2007 Foru Dekretua garatu zuten arauetako bat Hezkuntzako kontseilariaren 217/2007 Foru Agindua izan zen, abenduaren 18koa, non arautzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era. Araudi hori, gaur egun, indarrean dago, eta erreferentzia orokor gisa erabiltzen da 1. eta 3. mailetan ebaluazioa egiteko, gerotzik

onetsi diren maila altuagoko araudietan xedatutako mugekin, zeinek erreferentzia egiten baitiete DBHko dibertsitatearen trataerari, sustapenari eta curriculum egokitzapen garrantzitsuei. Arau horiek berez indargabeturik geratuko lirateke goragoko araua den 26/2015 Foru Dekretuaren eraginez.

Gauza bera gertatzen da Batxilergoan. 25/2014 Foru Dekretuak Batxilergoaren curriculum arautzen du. Azken xedapenean ezarpenerako egutegia eta hura pixkanaka nola egin arautzen ditu. Hura garatu zuen arauetako bat 191/2008 Foru Agindua izan zen, Batxilergoaren ebaluazioari buruzkoa.

Hauteskunde orokorretarako deiaaren ingurubarrak, LOMCEren aplikazioari buruzko eztabaida eta autonomia erkidego ia guztietan horri buruz dagoen kautela direla eta, zuhurtasunez jokatu behar da Departamentu honen jardueretan, kautelazko neurri gisa, harik eta autonomia erkidego guztiek nahitaez bete beharreko goragoko mailako legegintza-panorama finkatzen den arte.

Hala eta guztiz ere, une honetan, Hezkuntza Departamentua lanerako zenbait hipotesi ari da baloratzen, DBHko 1. eta 3. mailetakoa eta Batxilergoko 1. mailako 2015-16 ikasturtean ikasketa horiek egiten ari diren ikasleen ebaluazio prozesua eta sustapena arautuko duten jarraibideak definitzeko. Horren xedea da ikasleen interesak eta arau indarduna nahitaez betetzearekin lotutako segurtasun juridikoa uztartzea.

Ebaluazioa ikasleen ikaskuntza-prozesuaren erregistrarako eta baloraziorako prozesu sistematikoa dela jota, 25/2015 Foru Dekretuko 13. artikulua, ebaluazioari buruzkoak, eta 14. artikulua, sustapenari buruzkoak, eta, halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 18ko 217/2007 Foru Aginduko 2. artikulua –Ebaluazioaren ezaugarri nagusiak– eta hurrengoek, bai eta EDUCAREN aplikazioak ere, behar diren tresnak ematen dituzte ikastetxeek 2015-2016 ikasturteko ebaluazio prozesua has dezaten ikasleen ardura, ahalegina eta hezkuntza-etekina behar besteko bermearekin balioesteko moduan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 24an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, “Valle del Ebro” BHIrako eta Tuterako ETI ikastetxe integratu politeknikorako sarbideei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Valle del Ebro” BHIrako eta Tuterako ETI ikastetxe integratu politeknikorako sarbideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek 9-15/PES-00111 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Planteatutako galderaren bidez jakin nahi da ea Hezkuntza Departamentuak aurreikusi duen

inolako jarduketa prebentiborik “Valle del Ebro” Bigarren Hezkuntzako Instituturako eta Tuterako ETI ikastetxe integratu politeknikorako sarbideei dagokienez, 2015eko urriaren 13an gertatutakoen gisako gertakariak ekiditeko. Horri buruz esan beharra dago Azpiegituren Zerbitzua autobusen, autoen eta oinezkoen zirkulazioa arautzen ari dela bi ikastetxeetako sarbide, aparkaleku eta ondoko zerbitzu-bideetan. Hartara, iragan den udan “Valle del Ebro” BHIko barneko patioa 5.000 m<sup>2</sup> asfaltatu dira, bertan bi ikastetxeetara ikasleak eramaten dituzten autobus guztien aparkalekua kokatzeko. Ondoren, aurreikusita dago bai asfaltatutako azalera berri horren seinaleztapen horizontala, bai gainerako sarbideena ere, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioak bereizteko, etorkizunean istripuak saihesteari begira.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak Tuterako “Valle del Ebro” BHIko irakasle bati eskola ordu kopuruaren handitzea ukatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak Tuterako “Valle del Ebro” BHIko irakasle bati eskola ordu kopuruaren handitzea ukatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek 9-15/PES-00112 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Lehena. Tuterako Valle del Ebro BHIari esleitutako zuzkidura-orduak 1396 dira, guztia, derrigorrezko bigarren hezkuntzako etaparako.

Zuzkidura hori, 344 ordu, % 24,64 egiten dutenak, honako kontzeptuei dagozkie:

– Dibertsitatea: 54 ordu

– Laguntza: 17 ordu

– Bikoizketak: 148 ordu.

Institutuak, bere autonomiaren barruan, klausuroak hala erabakita, ordu horiek guztiak erabili ditu eskolaratze arloak emandako taldeez gainetik hamar talde gehigarri eratzeko. Horiekin, aukera eman nahi da ikasleen hezkuntza-arreta eta ikasgeletako bizikidetasuna hobetzeko.

Mailen araberrako igoera, urteko programazio orokorrean jasotakoa, honako hau da 2015/2016 ikasturtean:

– DBHko lehen mailan, hiru talde gehiago.

– DBHko bigarren mailan, bi talde gehiago.

– DBHko hirugarren mailan, hiru talde gehiago.

– DBHko laugarren mailan, bi talde gehiago.

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Gazte Bermearen Funtseko laguntzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gazte Bermearen Funtseko laguntzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak galdera egin du Gazte Bermearen Funtseko laguntzei buruz (9-15/PES-00113). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietateko lehendakariordearen erantzuna:

#### **1. Nafarroari esleitutako zenbatekoa**

Europako Gizarte Funtseko Unitate Administrazioaileko zuzendari nagusiak (UAFSE, Enpleguaren eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa) Nafarroako Gobernuako Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiari zuzendutako 2013ko abenduaren 10eko eskutitzaren bitartez, jakinarazi zion "Gazteen Enplegurako Ekimenaren" (YEI, ingelesezko siglak erabilita) diru-asignazioa, Nafarroako Foru Komunitateari dagokiona 3.541.218 eurokoa zela; haren kofinantzaketata, berriz, % 100ekoa da.

YEI funts hori jasotzeak aldi berean konpromiso bat eskatzen die erregioei, alegia, Europako Gizarte Funtseko beren zuzkiduratik pareko zenbateko bat erabiltzea (Nafarroaren kasuan, horrenbestez, beste 3.541.218 euro). Tarte horren kofinantzaketata-tasa Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen erregioen arteko altuena da; Espainiako kasuan, % 85.

Azkenik, halaber, exijitzen da beste zenbateko gehigarri bat bideratzea, gutxienez ere YEI funtseko zuzkiduraren % 50; eta hori ere erregioi Europako Gizarte Funtseko zuzkiduraren kargura (Nafarroaren kasuan, 1.770.609 euro, zeinak 3.541.218 euroren % 50 baitira). Tarte horren kofinantzaketata-tasa erregioari bere kategoriaren

arabera dagokiona da, Europar Batasuneko 1303/2013 Erregelamenduko (UE) 90. eta 120. artikuluetako xedapenei jarraituz. Nafarroako kasuan, "erregio garatueneren" kategorian sartzen denez, kofinantzaketaren portzentajea % 50 da.

Horrenbestez, aipatutako hiru tarteak batuta, Nafarroarako zuzkidura finantzario europarra, 2014-2020 urteetarako, Gazteen Enplegurako Programa Operatiboan, 8.853.045 eurokoa da, UAFSEren aipatutako eskutitzean adierazi bezalaxe.

Tarte desberdinak daudenez, kofinantzaketata-tasa berariazkoekin, Nafarroan Gazteen Bermerako Sistemako gazteen kolektiboari zuzendutako neurrietan behar den guztizko inbertsioa 11.248.578 eurokoa da. Kopuru horretatik, erkidegoaren ekarpena 8.853.045 eurokoa izanen da.

2015eko azarora arte, 8.853.045 euroko esleipen horretatik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren diruzaintzan 1.245.623,62 euro sartu dira guztira, hasierako aurre-finantzaketaren kontzeptuan, 1303/2013 Erregelamenduko (UE) 134.1 artikuluko a) eta b) letretan eta 2015/779 Erregelamenduko (UE) 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

#### **2. Nafarroan ezarri diren Gazteen Enplegurako Programa Operatiboko neurriak**

Lehenbizi, zehaztaperen bat egin beharra dago Europako Egiturazko Funtsen eta Inbertsio Funtsen finantza-fluxuari buruz, funts horien artean baitago EGF-YEI delakoa.

Arau orokor gisa, funts horien onuradun diren nazio edo erregioetako administrazio publikoek beren baliabide berekiekin finantzatu behar dituzte egiten dituzten jarduketak guztiak eta gero, behin egintzak amaituta, Europar Batzordeari ziurtatu behar dizkiote egindako gastuak, Europako kasuko kofinantzaketata lortzeko. Arau horren salbuespena aurrerakinak dira, zeinak ematen baitira Europar Batasunari inongo gasturik justifikatu gabe. Aipatu bezala, Nafarroak 1.245.623,62 euro jaso ditu aurrerakin moduan.

Nafarroako Gobernuak abian jarri dituen neurriei dagokienez, ondoren erakusten dugu aurreikusitako inbertsioari buruzko taula bat, bai eta 2015eko azarora arte egindako gastua ere:

Neurria / Jarduketa	Erakunde kudeatzailea	2014-2020 urteetako aurreikusitako inbertsioa (eurotan)	2014an eta 2015ean egindako gastua (2015eko azarora arte) (eurotan)
<b>Hastapeneko lanbide-prestakuntza hobetzea</b>			
*Oinarrizko lanbide heziketako zikloak eta lanbide-tailerak (CENIFER eta Iturrondo)	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	1.943.024,00	1.340.306,94
*Gaitasun unitateak edo profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko ikastaroak			
Hastapeneko lanbide kualifikazioko programak 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteak	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia	4.542.578,00	4.542.578,00
<b>Enplegarritasuna sustatzea</b>			
Prestakuntza eta enpleguko programa mistoak (tailer-eskolak eta lanbide-etxeak)	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	800.000,00	168.339,21
Toki entitateentzako zuzeneko laguntzak, gazteen kontratazioa sustatzekoak		700.000,00	406.800,00
Enpresentzako zuzeneko laguntzak, gazteen kontratazioa sustatzekoak		1.000.000,00	0,00
Familia eta lana bateratzeko zerbitzuetan laneratzeko laguntzak		40.000,00	0,00
Erkidegoaz kanpoko enpresa eta erakundeetan praktikak egiteko bekek	Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusia	1.356.000,00	253.981,51
Ikerketa biomedikoaren esparruko laneoak ez diren praktikak	Miguel Servet Fundazioa	56.976,00	35.984,79
<b>Enplegurako orientazioa</b>			
Gazteentza diseinatutako lan-orientabideko eta -informazioko programa	Nafarroako Enplegu Zerbitzua	810.000,00	259.989,61
<b>GUZTIRA</b>		<b>11.248.578</b>	<b>7.007.980,06</b>

Neurri hauek ezartzen ari dira Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean aurreikusitako planaren arabera. Plan hori Gobernu Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 14ko bilkuran aurkeztu zen (Prensa-albistea).

2015ean betetako gastua hartu da aurrekontu-betetzeko "Erabilitakoa" fasetik, zeren eta espero izatekoa baita hitzartutako kreditua amaieran derrigorrez gertatzea eta ordaintzea. Hala eta guztiz ere, ekitaldiaren amaieran aldaketa batzuk egon daitezke, baina arrazoizkoa da pentsatzea ez dela alde handirik izanen, eta horregatik ematen da informazio hori.

Ikusten den bezala, Gazteen Enplegurako Programa Operatiboko neurrien betetzea gaur egun % 62,30ekoa litzateke, zeren eta kasuko aldiaren egin beharreko 11.248.578 euroko inbertsioetik 7.007.980,06 euro exekutatu baitira 2015eko azaroan.

Azkenik, zehaztu beharra dago Enpleguaren eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa, zeina Gazteen Enplegurako Plan Operatiboaren arduraduna baita, hura kudeatzen duen agintaria den aldetik, oraindik ere ez duela ezarri Europar Batzordeari gastuak ziurtatzeko sistema (gastua egiaztatzekeko prozedurak, ziurtagiria jasoko duten aplikazio informatikoak eta abar). Horrenbestez, bere garaian gastuaren gainean ezarritako kontrolak aurrera eraman ez direnez, ezin dugu baieztatu egindako gastu guztia EGF-YEiren kargura ziurtatu ahalko denik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2015eko azaroaren 18an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren neurriei buruzkoa, ETAren biktimen memoria erreparatu, haien duintasuna berreskuratu eta justizia egitekoak.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren neurriei buruzkoa, ETAren biktimen memoria erreparatu, haien duintasuna berreskuratu eta justizia egitekoak. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du ETA banda terroristaren biktimentzako erreparazio- eta oroitzapen-ekitaldiei buruz (9-15/PES-00114). Hona Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordearen 2015eko urriaren 20ko bilkuran –eta data horrexetan erregistratu zen galdera–, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak aipamen bat egin zuen "biktima guztien duintasuna eta haien bazterketarik gabeko banakako tratamendua" aldarrikatzeko beharrari buruz. "Izan ere, gobernu honek uste du ez dela bakerik izanen, ez dela bizikidetasunaren bidean aurrera egin ahalko ez bazaie aukerarik ematen biktima guztiei, ETA-renei zein beste indarkeria batzuetakoei eta gerraz zibilekoei, beren duintasun pertsonala eta are duintasun soziala ere berreskuratzeko".

Nafarroako Gobernuak biktimen esparruan egiten duen apustua gauzatu nahi izan da gure Administrazio organigraman, lehenengo aldiz, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arlo bat sortuz. Sortu berritako zuzendaritza nagusi bat izateak esan nahi aurretik egiturarik ez zegoela, eta, horrenbestez, une honetan, ahaleginak egiten ari gara gai horrexetan zentratuta: lantalde bat osatzea, bakearen, bizikidetzaren eta biktimei



arreta ematearen esparruan gizarteak eskatzen duenari erantzuna emateko.

Horri dagokionez, gobernu hau ETaren biktimak gogoratzeko ekitaldietara joaten ari da, gonbidatzen dutenean, eta etorkizunean ere gauza bera eginen du. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta eleduna, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiarekin batera, 2015eko urriaren 23an, "La Victoria de la Libertad: la Policía Nacional contra el terrorismo" erakusketaren inaugurazioan egon ziren. Erakusketa ETaren atentatuetan eraildako 186 polizia nazionalen oroimenez egin zen; horietatik 15 Nafarroarekin lotuta zeuden.

Gobernu honek, Bekearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, eginen dituen jardueri dagokionez, helburu izaten ari da edo helburu izanen du biktimen elkar-teei eta biktimei berei entzutea, eta horretan lan egiten ari gara. Garrantzitsua da biktimak kontuan izatea jarduera zehatzak antolatu baino lehen. Biktima bakoitzaren beharrianak hobeki ulertzeak

lagundu eginen du modu egokiago batez planifikatzen memoria erreparatzen, duintasuna berreskuratzen eta ETaren biktimei justizia egiten lagunduko duten ekitaldiak.

Kontseilariak 2015eko urriaren 20an Parlamentuan egindako agerraldian, Beltrán andreak aipatzen duen hartan, adierazi bezala, garrantzitsua da erantzuna ematea ETaren biktima batek adierazitako honako honen antzeko esaldiei: "Albiste eta aurrerapen ezak, ikertzen jarraitzeko interes gutxi egotearen inguruan biktimek batzuetan izaten dugun sentimenak, eramaten nau gauza guztietan, eta bereziki justizian, fedea galtzera, halako punturaino non gaizki sentitzen naizen legez dagokiguna exijitzeagatik".

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 18an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## **Galdera, Nafarroako Ospitalegunean endoskopiatarako gelak irekitzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ospitalegunean endoskopiatarako gelak irekitzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Ber-

naola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00115), informazioa nahi baitu "Nafarroako Ospitalegunean endoskopiatarako gelak irekitzeari buruz?". Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

2016eko urtarrilaren bigarren hamabostaldira-ko dago aurreikusita Nafarroako Ospitalegunean endoskopiatarako gelak abian jartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## **Galdera, Ogasun Ministerioaren ordainketari buruzkoa, C hepatitisaren aurkako tratamendurakoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ogasun Ministerioaren ordainketari buruzkoa, C hepatitisaren aurkako tratamendurakoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du.

Galderak 1648 sarrera-zenbakia dauka, 2015eko urriaren 20koa (8-15/PES-00116), eta haren bidez jakin nahi du ea Ogasun Ministerioak ordaindu ote dituen C hepatitisaren aurkako tratamendurako jada adostutako 14 milioi euroak. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna

Gaur den egunean, Ogasun Ministerioak ez du kontzeptu horri dagokion ordainketa egin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoaren azpiegitura berriak egiteko aurreikusitako epeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoaren azpiegitura berriak egiteko aurreikusitako epeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak 9-15/PES-00117 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Castejongo “2 de Mayo” HLHIPko azpiegitura berriak egiteari buruz aurreikusitako epeei dagokienez, esan beharra daukagu DBHI berria eraikitzeko prozesua hasita dagoela, DBHko 1. mailatik 4. mailara bitarteko 2-3 lerro jartzeko. Horrekin hezkuntza erkidegoaren eskolaratze-premiak eta eskakizunak beteko dira; izan ere, aurreko lantaldeak aurreikusitako zabalpena ez zen nahikoa.

3,2 milioi euroko kostua aurreikusi da, eta hura egiteko epeei erreparatuta aurreikusita dago 2017-18 ikasturtearen hasierarako funtzionamenduan egotea.

Hezkuntza Departamentuak xehetasun horiek guztiak ikastetxeari eta Castejongo Udalari jakinarazi dizkie, eta, halaber, Hezkuntza kontseilariak iragarri zituen urriaren 29an Parlamentuan egindako agerraldian.

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Nafarroako enpresen lehiakortasunari buruzkoa, sozietateen zerga dela-eta.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ainhoa Unzu Gárate andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako enpresen lehiakortasunari buruzkoa, sozietateen zerga dela-eta. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Unzu Gárate andreak 9-15/PES-00118 galdera egin du. Hona

Garapen Ekonomikorako kontseilariaren informazioa:

Sozietateen gaineko zergaren tasaren igoerak ukitutako enpresak zerga horren aitortpena egiten duten enpresen % 14,35 dira.

Lehiakortasuna enpresek beren lehiakideen artean onenak izateko dauzkaten gaitasunen eta egiten dituzten jardueren multzoari lotutako kontzeptua dela ulertuz gero, jo dezakegu lehiakortasun hori batez ere zergen aurretiko emaitzak sortzeko garaian zaindu beharko dela..

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## **Galdera, autismoaren arloko esku-hartze terapeutiko handiagoaren beharrari buruzkoa, hurrei eta nerabeei dagokienez.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Victoria Chivite Navascués andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, autismoaren arloko esku-hartze terapeutiko handiagoaren beharrari buruzkoa, hurrei eta nerabeei dagokienez. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00119), informazioa nahi baitu "Autismoaren arloko esku-hartze terapeutiko handiagoaren beharrari buruz, hurrei eta nerabeei

dagokienez". Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Lehen. Bai, beharrezkotzat jotzen da egokitzea haur eta nerabeekin autismoaren arloan Osasun Sistema Publikoak eskaintzen duen esku-hartze terapeutikoa.

Bigarrena. Premia horri erantzuna eman ahal izateko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak teknikarien lantalde bat badu, eta atzeman goiztiarrari, diagnostikoari eta berariazko tratamenduari buruzko lantalde horren proposamenak jasotzearen zain gaude, halakoak Osasun Sistema Publikoan ezartzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## **Galdera, erradioterapiako tratamendua jasotzen duten Erriberako gaixoen ordutegi-banaketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erradioterapiako tratamendua jasotzen duten Erriberako gaixoen ordutegi-banaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00120), informazioa nahi baitu "Erradioterapiako tratamendua jasotzen duten Erriberako gaixoen ordutegi-banaketari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

– Erradioterapia-tratamendua behar duten Erriberako zenbait gaixok arratsaldeko txanda eskatu dute, eta ez da eskaera hori aintzat hartu. Zergatik?

1. Nafarroako Ospitaleguneko Onkologia Erradioterapikoaren Zerbitzuan eriek jarraitu behar duten tratamendurako ordutegiak erien ordutegi-premien arabera egokitu ahal dira, eta horretarako ahaleginak egiten dira.

2. Erriberatik tratamendua hartzera heldu diren eriak gutxi gorabehera 15:20an iristen den autobu-

sean etortzen dira Nafarroako Ospitalegunera. Garraio horrek 8 edo 9 eriren muga dauka, eta 16:30ean-edo itzultzen da. Hori dela eta, gainerako eriak goizez dagoen beste zerbitzu batean ekartzen dituzte; 9:20ak aldera iristen da zerbitzu hori.

3. Onkologia Erradioterapikoaren Zerbitzuak goizez tratamenduan dauden erien tratamendurako ordutegia aldatzen du arratsaldean hutsuneren bat sortzen denean.

– Osasun Departamentuak ba al du inolako neurririk hartzeko asmorik, Erriberako gaixorien eskaerari baieztatu erantzuna emateko?

Nafarroako Ospitaleguneko Onkologia Erradioterapikoaren Zerbitzuak ez du inongo eragozpenik bere gain hartzeko Nafarroako Erriberatik arratsaldean etortzen diren erien guztien tratamendua.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharra dago horretarako ezarritako dauden autobusetan garraiatutako pertsona-kopuruak gora egiten baldin badu eta Erriberatik heldu diren erien guztiak batera iristen badira (batez beste, eguneko 13 erien) horietako bakoitzaren tratamendua hasteko eta beren etxetara itzultzeko itxaronaldiak gehiegizkoak izan direla, eta horrek eriei enbarazu egiten diela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## Galdera, Osasun Mentaleko Erizaintzako espezialitateari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Mentaleko Erizaintzako espezialitateari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00121), informazioa nahi baitu "osasun mentalean espezialista diren erizainen prestakuntzarako inbertsioari buruz eta espezialitate horretako profesionalak kontratatzeari buruz?" Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Nafarroako Gobernuak egin al du inbertsiorik erizain horiek osasun mentalaren espezialitatean prestatzeko? Baiezkoan, inbertsio horren zenbatekoa eskatzen dugu, urtez urte xehakaturik.

Osasun mentalaren arloko erizain espezialisten prestakuntza, bai eta gainerako espezialitateetarako prestakuntza ere, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak araututa dago, azaroaren 21eko 44/2003 Legeko 20.3.f) artikuluan xedatuaren arabera. Hori gero urriaren 6ko 1146/2006 Errege Dekretuaren bitartez aratu zen, eta horretarako kreditatutako irakaskuntza-unitateek gauzatzen dute.

Osasun mentaleko arlo anitzeko profesionalen irakaskuntza-unitatea Osasun, Kontsumo eta Gizarte Politikako Ministerioak kreditatu zuen 2011ko abuztuan, Psikiatriako, Psikologia Klinikoko eta Osasun Mentaleko Erizaintzako espezialisten prestakuntzari dagokionez.

2012ko maiatzean abian jarri zenetik 2015eko maiatzera arte (3 urte eta erdi), bost erizainek amaitu dute prestakuntza, eta osasun mentaleko erizain espezialistaren titulua lortu dute.

Gaur egun, bost barruko erizain egoiliar (EIR) ari dira bi urteko iraupena duen prestakuntza programa hori egiten (hiru lehenengo urtean daude eta bi bigarrenean).

Prestakuntza-programa honetan egindako lan kontratuek 173.024,50 euroko kostua izan dute guztira (25.628,27 € 2012an; 70.053,67 € 2013an, eta 77.342,56 € 2014an).

Osasun Departamentuak zer irizpide darabiltza osasun mentaleko zerbitzuetan erizainak kontratatzeko?

Osasun mentaleko zerbitzuetan erizainak kontratatzeko irizpideak ezartzen dituen esparrua Osasun kontseilariaren uztailearen 4ko 60/2015 Foru Agindua finkatutakoa da. Horren bidez, Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetan aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dira. 2015eko maiatzaren 29ko 103. NAO on argitaratu zen.

Arau horietan jasotzen da Osasun Mentalean kontratazio zerrenda bereziak egonen direla, bai erizaintzarako, bai erizaintzako zainketa lagungarrietarako teknikarientzat (EZLT).

Erizainak zerrenda berezietan sartzeko bide bikoitza dago, Osasun kontseilariaren maiatzaren 19ko 60/2015 Foru Aginduko 15. artikuluan finkatutakoa.

- Osasun Mentaleko erizain espezialistaren kasuko titulua edukitzea edo lanpostuarekin lotutako gradu-ondoko prestakuntzaren egiaztatzea.

- Azken hiru urteetan gutxienez ere 180 egunez Nafarroako Osasun Mentalaren Sarean zerbitzuak eman izateari buruzko egiaztatzea.

Osasun Mentalaren esparruko erizainen kontratazio-beharrei erantzuteko deiak honako sekuentzia honi jarraitzen dio:

- Lehenengo, Osasun Mentaleko Erizaintzako zerrenda berezietako langileei deitzen zaie.

- Bigarrenik, erizaintzako gradu-ondokoa izan eta titulu ofiziala izapidetzen ari direnen zerrendako kideei deitzen zaie (titulua lortzeko tasa ordaintzen dutenean jada zerrenda berezietan izena eman ahal dute).

- Azkenik, Erizaintzako zerrenda orokorrean daudenei deitzen zaie.

Espezialitate horretako profesionalak kontratatze berriazko deialdirik ba al dago?

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2013ko, 2014ko eta 2015eko enplegu publikoaren eskain-

tza onesten duen martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuaren bitartez, osasun mentaleko erizain espezialistaren sei lanpostu huts atera ziren, sortu berritakoak, enplegu publikoaren eskaintzara. Plantillan honako lanpostu zenbakiekin identifikatuta geri dira: 70859, 70860, 70861, 70862, 70863 eta 70864. Lanpostu horiek osasun mentaleko ospitaleratze unitate berrietarakoak dira.

Halakorik ez balego, departamentuak ba al du gisa horretako deialdirik egiteko?

Osasun Mentalaren Kudeatzaitzaren aurreikuspena da osasun mentaleko erizain espezialistaren lanpostuak sartzan joatea Nafarroako Osasun Mentalaren Sareko baliabide guztietan. Prozesu horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu osoa hartzen du, zeren eta erizaintzaren esparruan bestelako espezializazio batzuk ere bai baitaude.

Erizaintzako gaur egungo plantillako 78 lanpostuetatik, 72k osasun mentaleko erizain espezialistaren profila dute. Lanpostu horietatik 24 jada osasun mentaleko erizain espezialistek betetzen dituzte.

Osasun Mentaleko kontratazio-zerrenda berezietan izena emandako pertsonetatik, oso gutxik daukaten osasun mentaleko erizain espezialistaren titulua. Badakigu titulu hori duten pertsonak ONOZeko beste arlo batzuetan ari direla lanean, baina ez dakigu noraino dauden beren lan-esparruan lan egiteko moduan. Datorren enplegu publikoaren eskaintzak informazio fidagarriagoa emanen digu.

Bistan dago osasun mentaleko espezialistak diren barruko erizain egoiliarren prestakuntza-programarekin jarraitu beharra dagoela, etorkizuneko beharrak eta titulu hori daukaten pertsonen eskasia direla eta.

Gainera, ukitutako pertsonen lan-eskubideekin lotutako elementuak hartu beharko ditugu kontuan, eta horrek eskatuko du negoziazio kolektiboko prozesu bat egitea, zeinak ez dituen soilik hartuko osasun mentaleko erizain espezialistak eta honako alderdi hauek landuko dituen:

- Erizain espezialistaren profila duten lanpostuak betetzeko baldintzak.
- Profil hori duten lanpostuetan ari diren eta osasun mentaleko espezialista titulurik ez duten langileen egoera.
- Espezialistenak dien lanpostuetan aurrez emandako zerbitzuen balorazioa.
- Lansarien esleipena.
- Enplegu publikoaren eskaintza berariazkoaren deialdia.
- Langileen mugikortasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## **Galdera, Nafarroan jarduten duten segurtasun indar ezberdinek azken 20 urteotan eginiko atxiloketei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan jarduten duten segurtasun indar ezberdinek azken 20 urteotan eginiko atxiloketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatzizko zenbait galdera egin ditu (9-15/PES-000122); honako hauek, hain zuzen: “Nafarroan jarduten duten segurtasun indarretako bakoitzak zenbat atxiloketa egin ditu azken 20 urteotan? Datuak urtez urte sailkaturik jaso nahi ditut” eta “Segurtasun kide bakoitzak atxilotutako pertsonen leporatu zaizkien delituen sailkapena jakin nahi dut. Horietako zenbat izan dira kondenatuak?”. Hona Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Barne Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen otsailaren 17ko 400/2012 Errege Dekretuak 2.3 artikuluko a) letran dio Segurtasunerako Estatu Idazkaritzako Koordinazioaren eta Azterlanen Kabineteari honako eginkizun hauek dagozkiola, besteak beste:

Bigarrena. Kriminalitateari buruzko Estatistika Nazionala garatu, ezarri eta kudeatzea, Estatuko

segurtasun indar eta kidegoetatik, polizia autonomikoetatik eta tokiko polizietatik bidezko diren datu guztiak batera bilduz.

Hirugarrena. Kriminalitatearen egoerari eta bilakaerari buruzko txosten estatistikoak aldizka egin eta zabaltzea.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago Foruzaingoa, 2006. urtetik, Segurtasunerako estatu idazkariak Barne Ministerioan koordinatzen duen Estatistika Kriminalaren Sistemaren sartuta dagoela.

Bestalde, Foruzaingoa, hilero, Segurtasunerako Estatu Idazkariaren Koordinazioaren eta Azterlanen Kabineteari igortzen dizkio atxilotutako pertsonen buruzko datuak, delitu-motaren arabera sailkatuta, bai eta argitu diren delituei buruzko datuak ere, Barne Ministerioak kriminalitateari buruzko datuen erregistroarako ezarritako metodologiari jarraituz.

Hori guztia dela eta, kontuan hartuta parlamentu-galderan eskatutako datuak Nafarroako segurtasun kidego eta indar guztien jarduerari buruzkoak direla eta, gainera, datu horiek Segurtasunerako Estatu Idazkaritzan erregistratuta daudela, logikoa dirudi haiek Koordinazioaren eta Azterlanen Kabineteari eskatzea, bera baita haiek jakitera emateko organo eskuduna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

